

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Futboleko Mozarti requiema



Ezkerretik eskuinera, Reichstaga Adolf Hitlerrek Anschluss-aren berri eman zuen egunean, 1938ko martxoan; Matthias Sindelar futbolaria; eta Wunderteam, Austriak inoiz izan duen futbol selekziorik onena.

AUSTRIA, 1938. *Anschluss* delakoa gauzatu zen. Hitlerren Alemania naziak Austria anexionatu zuen, alegia. Handik aurrera Austria Ostmark izango zen (Ekialdeko Marka). Hitlerrek ederki zekien propagandak eragin handia zuela eta kirola mesedegarri zela bide horretan. Eta *Anschluss*ak aukera ederra eskaini zion Alemaniako futbol selekzio boteretsua eramateko Frantziako Mundialera. Austria garaiko talderik onenetakoa zen, herrialdeak inoiz izan duen selekziorik bikainena. *Wunderteam* esaten zioten, hots, talde liluragarria.

Taldeko izarra Matthias Sindelar zen. Iskin egiten eta erritmoa aldatzen oso azkarra zen, eta baloia eramaten abila. Futboleko Mozart esaten zioten horregatik, eta *Papierenne* (paperezko gizona) izenez era ezaguna zen, oso arina zelako eta, meharra izaki, hauskorra zirudielako. Goleatzailerik bikaina zen gainera, eta taldeko kapitain eta liderra Vienako Austria taldean nahiz selekzioan. Bere dohainen artean duintasuna ere bazegoen ordea, eta Hitlerren ametsezko taldean parte hartzeari uko egin zion. Ez zuen Austriakoa ez zen elastikorik jantziko. Familia xume batean

1903an jaioa, Lehen Mundu Gerran aita hil eta gorriak ikusi zituzten, Matthiasek, futbolari esker, familia osoa aurrera ateratzea lortu zuen arte. Ez zion inoiz bere jatorriari uko egin. Austriako herritarrentzat Sindelar heroia zen.

Ezezkoa kolpea izan zen Reicharentzat, eta ez zuen soilik selekzioaren jokoan eraginik izan. Alemaniarek Sindelarren irudia zikindu behar zuten eta zurrumurruak bota eta bota aritu ziren. Helduleku sendoa topatu zuten, gainera, haren aurka jotzeko: Matthiasen andregai Camilla Castagnola italiar juduen alaba zen. Ederki zekien bikoteak egoera hura oso arriskutsua zela eta ezkutatzea erabaki zuten. Baina egun batzuk geroago 1939ko otsailaren 10ean, Sindelar hilik topatu zuten Vienako apartamentu batean eta Camilla handik ordu gutxira hil zen ospitalean. Karbono monoxidoa arnasteagatik hil omen ziren, beren buruaz beste eginda edo istripuz, bertsio ofizialaren arabera. Baina askok SSen eskua ikusi zuten hor.

Manifestazioak guztiz debekatuta zeuden Austrian, baina 15.000 lagun bildu ziren Vienan Sindelarri agur esateko. ■

ARRASTOAK

MEXIKO 68 Joko Olinpikoetako podiuan Tommie Smith eta John Carlos atleta estatubatuar beltzek *Black Power* agurra egin zuten, ukabila gora eta eskularru beltzak jantzita, hurrenez hurren 200 metroko lasterketako urrezko eta brontzezko dominak jaso ondoren.

AEBetako beltzen eskubideen aldeko borroka mundu guztira zabaldu zuen keinu honek, hain zuzen, Martin Luther King hil



zuten urte berean (Malcolm X hiru urte lehenago hil zuten).

Luther Kingek amets bat izan zuen, eta 40 urte geroago Barak Hussein Obama, jatorri afrikarreko estatubatuar beltza, AEBetako presidente izateko zorian dago (inkestek faboritotzat jotzen dute). Utopia betetzear da, azalaren koloreari dagokionez, behintzat. Amets hura presidente berriaren politikan gauzatuko ote den ikusteko dago.